

# Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2020ko ekainaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
González de Viñaspre, Roberto,  
Iñigo, Andres,  
Kaltzakorta, Jabier,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Toledo, Ana,  
Urkia, Miriam eta  
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta  
Osa, Erramun,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorria adierazi dutenak:** Miren Azkarate, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

**Ahalak:** Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egin da, 2020ko ekainaren 26an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

**1. Osoko bilkurako (2020-05-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.**

Oharrrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko maiatzaren 29ko bilkurako bilera-agiria onetsirik gelditu da.

**2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak.** Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XX). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Urkiak, maiatzeko bilkuran aurkeztutako aztergaiari M. L. Oñederra, P. Zabaleta eta P. Salaberri euskaltzainek eginiko oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak aurkeztu ditu.

Ia denak onartu dira. P. Zabaletak *epe* sarrerako ‘patxada’ adieran (aztergaitik kanpoko) ezezka osatutako adibide bat gehitzea eskatu du, eta hala onartu da. Bestalde, egitasmoko kideek Onomastika batzordeari eskatu diote argi ditzala santu- edo errege-izendegietatik ez datozen izen arruntak erabiltzeko irizpideak, EODAn aldaera modura ageri direnak, alegia, *Henrike* forma arautuarekin batera *Endrike* eta *Endika* aldaera gisa datoz, baina ez noiz eta nola erabil litezkeen horiek.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak aditzera eman du gaia berariaz aztertuko dutela eta, dezaketen neurrian, erantzuna ekarriko dutela.

**3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak.** Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XXI). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko M. Urkia idazkariak, A. Iñigo, M. Azkarate eta X. Videgain euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Horiekin batera, aparteko dokumentu batean, *husna* auziari buruzko datuak jaso eta aurkeztu dira. Ez dago adostasunik etxe barruko argitalpenetan forma honen erabilera-zuzentasunari buruz, eta behingoz erabaki bateratua hartzea komeni dela uste dute egitasmoko kideek.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, uztailaren 10era arte.

**4. Onomastika: Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak arauaia.** Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak eta Alfontso Mujika batzordeko idazkariak M. Azkarate eta P. Zabaleta euskaltzainek eginiko oharrak eta Onomastika batzordeak landutako erantzunak aurkeztu dituzte.

Azalpenen aurretik, euskaltzainburuak esan du P. Zabaletak oharrak egiteko epea luzatzea eskatu duela eta, horrenbestez, uztailaren 10era arte zabalik mantenduko dela oharrak egin ahal izateko.

Lehenik, M. Azkarateren oharrak aztertu dira.

Lehen oharrean, batzordekideek azaldu dute *Gartzeitz* forma proposatzen dela kasu guztietarako, eta ez *Gartzeiz*; alegia, *Gartzeiz* agertzen den bi kasuetan *Gartzeitz* behar duela, errorea izan baita.

Bigarren oharrean, batzordea ados dago: *Gartzia I.a* (edo *II.a*) *Santxitz* jartzea eta oin-ohar batean auziaren berri ematea.

Hirugarren oharrean, *Ines/Aines* kasuan, batzordea ados dago: bitan agertzen da, eta bietan berdin jarri behar litzateke. Zer jatorri zuten eta non bizi izan ziren kontuan izanik, aldaera bakarra jartzekotan *Aines* aldaera jartzea proposatu du batzordeak. Ontzat eman da.

Laugarren oharra galdera da. Batzordeak adierazi du *Trastámarako etxea* 182. arauan ageri dela eta arauari jarraituz idatzi dela grafia horrekin. Horren hari-  
ra, gogorarazi da diakritikoen gaiari buruzko bateratze-lan bat egiteko eskatu ziola Osoko bilkurak Onomastika batzordeari iazko uztailan eta lan hori ia amaitu dagoela eta laster aurkeztuko zaiola Osoko bilkurari.

Azken oharrean, M. Azkaratek Fernando I.a zerrendan ez sartzearen aldeko iritzia eman du. Batzordea ados dago, baina gai horri buruzko erabakia Osoko bilkurak hartzeko eskatu zuen. P. Zabaletak ere horri buruzko oharra egin du, eta ohar guztiak ebatzi ondoren erabaki beharko da.

Ondoren, P. Zabaletaren oharrak aztertu dira.

Lehen oharrean, eztabaidatzeko epea luzatzea eskatzeaz gainera, proposatu du errege-erreginen zerrenda nagusiaz gain beste bi eranskin egitea: Ipar Euskal Herrikoa edo kontinental, Nafarroako Henrike III.aren hasita, Frantziako Luis XIV.ak “Nafarroako errege” tituluari uko egin zion arte; eta Hego Euskal Herrikoa edo penintsularra, Joana II.a Gaztelakoarekin hasita, 1839ra arte. Halaber, proposatu du zerrenda osagarri bat egitea Gaskoiniako Dukerriarekin. Batzordeak gogorarazi du Euskaltzaindiaren egitekoa izenen grafia finkatzea dela, eta infor-

mazio historikoak ematea ez dela Akademiaren berezko eginkizuna. P. Zabaletak proposatutako bi eranskinetan sartuko liratekeen errege-erreginen izen guztiak araututa daude jada 186. arauan, Nafarroakoak ez ezik, Espainiako edo Frantziako errege-erreginak ere izan zirelako. Horregatik, batzordearen ustez, izenen grafia finkatzeari dagokionez, ez da beharrezkoa. Gaskoiniako Dukerriko dukeen zerrendari dagokionez, badira batzuk arautuak Erdi Aroko pertsona-izenen arauetan: *Lupo*, *Oto*, *Hunaldo* (180. araua), *Amando*, *Genial* (181. araua). Exonomastika batzordean landu ziren, eta izen entzutetsuenak bakarrik hartu ziren. Osoko bilkurak uste badu hala ere komeni dela eranskinak eta Gaskoiniako dukeen zerrenda osagarria prestatzea eta arau honetan sartzea, dagokion batzordeak landu beharko ditu eta Osoko bilkurara ekarri.

Kontu hori hurrengo bileran erabakitzeke gelditu da.

Bigarren oharrean, batzordea ados dago izenburua moldatzearekin, garbi uzteko erresuma bat izan zela eta ez bi. Beraz, arauaren izenburua < *Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak* > izan beharrean, < *Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak* > jartzea proposatu du. Hala onartu da.

Hirugarren oharrean, errege-erreginen izenetan kardinalak adierazteko puntua kentzeari dagokionez, batzordeak esan du Euskaltzaindiak 1994an, 18. arauan, arautu zuela kardinalen idazkera eta arau horren arabera idatzi direla orain arteko arau guztiak. Araua aldatzen ez den bitartean, hala idatziko dira. Proposamena, beraz, ez dagokio orain aztertzen ari den araugaiari.

Laugarren proposamenean, *Eneko Aristaren* ordez *Eneko Aritza* jartzea proposatu du P. Zabaletak. Batzordeak izen-aldaeren azterketa xehea egin du (banatutako dokumentuan ageri da), eta garbi ageri da testigantza historikoetan *Arista*, *Aresta* eta *Ariesta* formak ageri direla iturririk zaharretan eta *Arista* dela aldaera nagusia. *Aritza* forma XIX. mendearen amaieran agertu zen, Arturo Campiónek asmatua, antza denez.

Gai hori ere hurrengo bileran erabakitzeke gelditu da. Horrela, denbora faltagatik, azken oharra ezin izan da eztabaidatu, eta hurrengo bilerarako utzi da.

## 5. Esku artekoak.

**5.1. Andres Iñigo euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsar-tea betetzeko hautagaiak.** Hutsar-tea betetzeko bi hautagai aurkeztu dira. Alde batetik, S. Aleman, R. G. de Viñaspre, A. Iñigo, P. Salaberri eta M. Urkia euskaltzain osoek Paskual Rekalde Irigoien euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Beste aldetik, M. Azkarate, M. L. Oñederra eta P. Zabaleta euskaltzain osoek Paula Kasares Corrales euskaltzain urgazlea aurkeztu dute.

Bi hautagaien aurkezpen laburra:

**Paskual Rekalde Irigoien:** Amaieur, 1963. Euskal Filologian lizentziaduna da EHUUn. Gaur egun, Nafarroako Gobernuko euskara itzultzailea da eta Eusko Jaur-laritzako Terminologia batzorde bereziko kidea.

Zenbait lan eta artikulu argitaratu ditu euskara batuaren eta euskalkien eta Baztango euskararen inguruan. Horien artean daude Mariano Izeta zenaren *Baztango Hiztegia* eta *Dirua galgari* lanen edizioa, eta Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako agiri zaharretako zenbait toponimo eta oikonimoren inguruko lanak, Andres Iñigorekin batera prestatuak.

Euskaltzain urgazle 2003an izendatua eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariorde, 2018an. 2000. urtean hasi zuen ibilbidea Akademian, eta gaur egun zenbait batzorde eta lantaldetako kide da (Corpus, Euskalkiak, Euskaltzaindiaren Hiztegia, EBE, Gramatika eta Onomastika) eta, orobat, HIZBEA (Hizkuntza Kalitatearen Behatokia) zerbitzuaren arduraduna.

**Paula Kasares Corrales:** Iruñea, 1969. Soziolinguistika arloan garatu du ikasketa eta lan ibilbidea. Doktorea da eta graduak nahiz graduondoak egin ditu euskal filologian, antropologian eta hizkuntza plangintzan.

Lan jarduna euskararen normalizazio teknikari lanetan hasi zuen, 1994an. 2001etik 2003 bitartean, Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendaria izan zen eta egun, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria da eta, orobat, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle dihardu.

Ikerketari dagokionez, soziolinguistika, hizkuntza eskubide eta hizkuntza antropologia alorretako hiru libururen eta hainbat artikuluren egilea da. Komunikazio eta hitzaldi ugari eman ditu Euskal Herriko nahiz atzerriko biltzar-mintegietan eta,

hondar hamarraldian, familian haurrak euskaldun haztearen gaineko hedapen eta sentsibilizazio jardueri loturik ibili da. 2006tik euskaltzain urgazlea da.

**5.2. 2020ko urte bukaerarako Euskaltzaindiaren diruzaintzaren aurreikuspenak.** A. Urrutiak azaldu duenez, 2020ko dirulaguntzak bideratuta daude, eta kasu batzuetan gauzatu dira lehen kobrantzak. Aurreko urteekin alderatuz gero, ez dago aparteko atzerapenik. Horrela, urtero egiten den legez, maiatzaren 12an izenpetu zen kreditu lerroa Kutxabank-ekin. Izan ere, finantza erakunde horrek, Eusko Jaurlaritzaren urteko dirulaguntza aurreratzen dio Euskaltzaindiari, urteko ordainketak gauzatzeko moduan egon dadin. Beraz, egungo diruzaintzaren egoerarekin eta hurrengo hilabeteotako kobrantzen eta ordainketen aurreikuspenekin, Euskaltzaindiak segurtatuak ditu heldu den urteko Aste Santu arteko ordainketa guztiak.

### **5.3. Gaur banatu diren liburuak. Hiru argitalpen banatu dira:**

Anton Ugartek idatzitako *Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954)*. Argitalpen hau Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Euskaltzaindiaren *Iker* bilduman argitaratu da.

Patxi Salaberrik eta Luis Mari Zalduak idatzitako *Gipuzkoako herrien izenak. Leukotasunak eta etimologia*. Argitalpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker argitaratu da. Euskaltzaindiaren *Izenak* bilduman argitaratu da.

Hainbaten artean idatzitako *Euskara Batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak*. Argitalpen honek, Aralar alderdiko Ezkerraberri Fundazioarekin batera, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2018ko ekainaren 1ean izen berarekin antolaturiko jardunaldietako txostenak jasotzen ditu. Euskaltzaindiaren *Jagon* bilduman argitaratu da.

### **5.4. Hurrengo bilkurak:**

- Osoko bilkura. 2019ko azaroan onartutako egutegia kontuan hartuz, uztailaren 17an egingo da Bilbon, egoitzan, 10:00etatik aurrera.
- “Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak” mintegia egingo da uztailaren 21ean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Mintegi hau Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da.

**6. Azken ordukoak.**

P. Zabaleta euskaltzainak konfinamenduan amaitutako *Nafarroa euskal epikan* Olerkizketa liburuaren zenbait ale banatu du. Euskaltzainek zorionak eman dizkiote argitara emaniko liburu berriagatik.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria